


ARAUDIA BETETZEA ETA TALDE KONTROLA

Ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako printzipioak



cajasur 

AURKEZPENA GOBERNU ORGANOEI

Kutxabanken Auditoria eta Betetze Batzordea, 2022ko azaroaren 22a

Kutxabanken Administrazio Kontseilua, 2022ko azaroaren 24a

Cajasur bankuaren Auditoria Batzordea, 2020ko abenduaren 21a

Cajasur bankuaren Administrazio Kontseilua, 2022ko abenduaren 22a

EDUKIA

1. Sarrera.....	3
2. Printzipio orokorrak	3

1. Sarrera

Ustelkeriak eta iruzurrak garapen ekonomikoa geldiarazten dute, demokrazia ahultzen dute eta justizia sozialaren eta Zuzenbide Estatuaren aurka doaz, ekonomiari eta gizarteari kalte larriak eraginda.

Kutxabank erreferentea da arlo honetan hartu dituen printzipio etikoekiko konpromiso irmoei esker eta bere gain hartu du jardueraren alderdi guztietan ustelkeriaren eta iruzurraren aurka borrokatzeak dakarren erronkan partaidetza aktiboa izatearen erantzukizuna.

Kutxabankek, Nazio Batuetako Munduko Itunaren sinatzaile den heinean, Itun horretan xedatutako 10 printzipioak betetzeko konpromisoa hartu du, baina printzipio hauen helburuetarako, 10. printzipioan jarriko dugu arreta: “Enpresek orotariko ustelkeriaren aurka lan egin behar dute, estortsioa eta eroskeria barne”.

Ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako printzipioen helburua da orotariko ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako mezu irmoa helaraztea, eta Kutxabankek duen ustelkeria eta iruzurra jarduera guztietatik desagerrarazteko borondatea azpimarratzea. Era berean, hainbat konpromiso dituzte barne, hala nola iruzurrezko egintza eta jokabideen edo nolabaiteko ustelkeria ahalbidetzen duten egintza eta jokabideen etengabeko zaintza eta zehapena, langile guztien komunikazio eta kontzientziaziorako mekanismo eraginkorrak mantentzea, eta etikaren eta zintzotasunaren enpresa kultura bat garatzea.

2. Printzipio orokorrak

Ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako politika arautzen duten printzipioak hauek dira:

1. Kutxabank eta Cajasur erakundeek ez dute onartzen, baimentzen edo parte hartzen inolako ustelkeria, estortsio edo eroskeriatan euren enpresa jardueren garapenean, ez sektore publikoan eta ezta sektore pribatuan ere.
2. Kutxabank eta Cajasur erakundeek prebentzioaren kultura sustatzen dute, oinarri hauek dituen: negozioetako ustelkeria guztiekiko eta legez kontrako egintzekiko eta iruzur egoerekiko “zero tolerantzia”, alde batetik, eta erakundeko profesional guztien aldetiko etika eta jokabide arduratsuaren printzipioen aplikazioa, bestetik, profesionalen maila hierarkikoa eta kokaleku geografikoa edozein izanda ere.
3. Negozioetako ustelkeriarekiko “zero tolerantzia” printzipio horrek izaera absolutua du eta erakundeen edo hauen profesionalen aldeko orotariko onura ekonomikoak eskuratzearen gainetik dago, betiere onura horiek oinarritzen badira legez kontrako edo erakundeen jokabide kodeetan jasotako printzipio etikoen kontrako negozio edo transakzio batean.
4. Kutxabank eta Cajasur erakundeetako profesionalen eta orotariko administrazio publikoen, agintaritzen, funtzionario publikoen eta funtzio publikoan parte hartzen duten gainerako

pertsonen arteko harremanak, eta baita alderdi politikoekin eta antzeko erakundeekin ezarritako harremanak ere, zuzendu egingo dira, edozein kasutan ere, lankidetzaren, gardentasunaren eta zintzotasunaren printzipioen arabera.

5. Erakundeetako profesionalek prestakuntza programa egokietan parte hartzen dute, nahikoa maiztasunarekin, arlo honetako ezaguerak eguneratzeko helburuarekin. Bereziki, langileek jokabide kodearen inguruko prestakuntza jasotzen dute, edozein iruzur, ustelkeria edo eroskeria egoera saiheste aldera.
6. Kutxabank eta Cajasur erakundeek gardentasun ingurune bat sustatzen dute, irregulartasun posibleen jakinarazpena ahalbidetzeko kanal egokiak mantenduta, besteak beste, salaketen kanal etikoa, erakunde hauetako profesionalek, hornitzaileek eta Kutxabank eta Cajasurreko akziodunek aukera izan dezaten zigor arloko betetzeen kudeaketa ereduaren urraketa ekar lezaketen jokabideak edo erakundeko profesional baten aldetiko legez kontrako edo jokabide kodeko jarduketa arauen kontrako egintza bat salatzeke.
7. Kutxabank eta Cajasur erakundeek konpromisoa hartu dute inolako errepresaliarik ez hartzeko, zuzenekoak zein zeharkakoak, aurreko paragrafoan adierazitako kanalen bitartez edo beste bitarteko batzuk baliatuta jokabide irregularren bat edo legearen kontrako edo zigor arloko betetzeen kudeaketa ereduaren kontrako egintzaren bat jakinarazi dutenen aurka, jokabide kodearen jarduketa arauen kontra doazen egintzak barne hartuta, fede txarrez jardun badute salbu.
8. Iruzurarekin, ustelkeriarekin eta eroskeriarekin lotutako arriskuak behar bezala aurreikusita daude barne prozedura guztietan eta, bereziki, hirugarrenekiko harremanak dakartzaten prozesu guztietan.
9. Kutxabank eta Cajasur erakundeek eta euren hornitzaileen arteko harremana legezotasunean, efizientzian eta gardentasunean oinarritzen da. Jokabide etiko eta arduratsua da Kutxabank eta Cajasur erakundeek jarduketa ildo nagusietako bat eta hornitzaileek bete egin behar dituzte erakundeek ezarritako ustelkeriaren, eroskeriaren eta estortsioaren inguruko politikak, arauak eta prozedurak. Kutxabank eta Cajasur erakundeetako hornitzaileek ez dizkiete opariak, erregaliak edo baimendu gabeko bestelako abantailak eskainiko, zuzenki edo zeharka, eskudirutan edo prestazio moduan, funtzionario publikoei, hirugarrenei edo edozein langileri, harentzat edo haren izenean garatutako jarduera profesionalaren testuinguruan, pertsona edo enpresa hornitzailearentzat kontratuak edo onurak eskuratzeko edo mantentzeko helburuarekin.